

zakilixut

© Olariagak



Aitor Renteria | BAIONA

ATZEKOZ AURRERA



GAIZKA IROZ

Bost urteko praktikaren ostean mugimenduak barneratzen dituzte Baionako esgrima eskolako ikasleek.

«Pentsa daitekeena baino zailagoa da ezpataz hunkitzea norbait», jakinarazi digu Kayserrek. «Errepikapenaren indarrez, has-tapeneko mugimendu traketsak fintzen doaz», gaineratu du. Hel-duen ezpata 110 cm luze da, eta gaztetxoena lauzpabost zentrimetro laburrago da.

El Zorroren eragina

Nahiz eta buruko babesa jantzirik ukan, zuzen-zuzenean aurkariaren ezpata begitartera datorkizula ikus-tea da zailena», dio irribarretsu Olivia Pipartek. «Beldurra gainditu behar dugu lehenik», adierazi du Clemence sei urteko nes-katoak. «Borrokaren ondotik aurkaria zenbat aldiz hunkitu du-gun erran behar diogu irakasleari», segitzen du Clemencek, «muti-koek indarrean egin nahi dute usu, baina

finki jokatzuz gaintitzen ditut, ez naiz haien lotsa».

Cedric, 11 urteko mutikoak, esgrimak hausnarketarako joera areagotu diola jakinarazten du. «Bukatzean bare-bare ateratzen naiz, joko bat da eta giro onean gabiltza».

Ondoren talde nagusia bitan banatu da, hasi berriak eta ari-tuak. «Horrela zehazki zaintzen ditugu, haien mugimenduak az-tertu, gero zaila baita natural-tzat hartu diren mugimenduak zuzentzen», adierazi du Kaysse-rrrek. Haurren esgrima egiteko arrazoiak galdetzean, irri batez ihardetsi zuen esgrima mai-suak: «Ardura telebistarena da: pirata edo ezpata filmak ikusi ondoren, Zorro filmak haur anitz hurbildu zizkigun».

Francois Kayserrek zuzentzen du Baionako Aviron taldeko esgrima saila. Olivia Piparten laguntzaz, Kayserrek bi talde gidatzen ditu. Gaztetxoek, 6-11 urte bitartekoak, ordubeteko saioa egiten dute ostiraletan, arratsaldeko bostetatik seietara. Helden saioa astelehen eta ostiraletan da, oren bat geroa-go.

Esgrima taldea duela bi urte osatu zen eta gaur egun hamar haur dabilta ikasten, Clemence da gazteena, sei urte, eta Cedric zaharrena, 11 urte.

«Bost urte behar dira bederen oinarritzko mugimenduak barneratzeko, guardia atxiki, armari eutsi eta borrokaren espiritua zorrozteko», dio Kayserrek.

«Esgrimaren bidez, haurrek duten energia guzia baretu, eta autokontrola lantzen dute», gaineratu du Kayserrek, «bakoitzak bere burua babesteko erantzukizuna hartu behar du, eraso eta defentsaren arteko oreka galdu gabe».

Olivia Pipart irakaslegaiaren begiradapean, haurrek beroketa ariketak egiten dituzte ezpata hartu aitzin. Urrats bat aitzina, bi gibelera, jauzi, makurtu bel-aunak, soina luzatu... dantza eskolan daudela pentsa genezake, mugimenduak fin bezain ari-

nak baitira. Ondoren, makildantza eta pastoraletan bezala, Oli-viak binaka ezarri ditu haurrak, buruz buru. Ezpatak elkar jo gabe laztantzen dira airean. Erleak balira bezala, bertzearen eztena saihestu behar dute aurkariaren soina hunkitzeko.

Erleak bezain begi zorrotz

Sei urtetik esgrima ikasten dute haurrek Baionako Aviron taldean